

Emakume arabarra, idazle, erbesteratua eta Opus Deiko kidea

Datorren urtean ospatuko da Ernestina de Champourcin (1905-1999) idazlearen mendeurrena. Poeta gasteiztarrari buruz Rialp argitaletxeak kaleratu duen liburua aurkeztu da Gasteizen. Egilea, Beatriz Comellas historialaria. “Ernestina de Champourcin. Del exilio a Dios” tituluarekin, biografia labur bat eta gai erlijiosoko olerki bilduma, “Via Crucis “ besteen artean, eskaintzen zaigu.

2004 Mar 30

Ernestina de Champourcinek, *generación del 27*ko idazleen artean emakume gutxietako bat zenak, gaztetandik izan zuen adiskidetasuna ospe handiko idazle batzuekin, hala nola Luis Cernuda, Gerardo Diego, Rafael Alberti eta, bereziki, Juan Ramón Jimenezekin. Honen ikasle sentitzen zen, Beatriz Comellasek esanez. Juan José Domenchina, Manuel Azañaren idazkariarekin ezkondata, Mexikora erbesteratu ziren Espainiako gerra zibilaren amaieran.

Comellasek idazlearen alde ezezagunetarikoa bat azpimarratzen du liburu honetan: erbestean jasan zuen eraberritze espiritualak. Garai hartan, Mexikon, Opus Dei ezagutu zuen eta 1952an erakunde honen kide egin zen. Urte haietako bere

poesia oparoaren gaiek idazlearen
barne-berritzea islatzen dute.
Gainera, Mexikon, Opus Deik
eskualde apaletan sustatutako
ekintza sozialetan parte hartu zuen.

1972an Espainiara itzuli zen.
Gaztelaniazko Literaturako Euskadi
Saria jaso zuen 1989an, Mujer
Progresista Saria ere eman zitzaion
eta Príncipe de Asturias Sariaren
hautagai izan zen 1992an. Arabako
Foru Aldundiak 1990etik aurrera
bere izena daraman poesia saria
iragartzen du urtero. Bere sorterria,
Gasteiz, bisitatu ondoren, Madrilen
hil zen.

Liburuaren aurkezpenean, Indar eta
Elkar gazte elkarteek guraso
batzordeek antolatuta, egileaz gain,
Jose Angel Ascunce, Literatura
Katedradunak, eta Laura Marinas,
poeta gasteiztarak, parte hartu
zuten.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/emakume-arabarra-idazle-
erbesteratua-eta-opus-deiko-kidea/](https://opusdei.org/eu-es/article/emakume-arabarra-idazle-erbesteratua-eta-opus-deiko-kidea/)
(2026 Mar 10)